



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO EKAINAREN 19KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Bilera berezia.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2015.06.19.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

M.Carmen Peña Lizarazu and.

Ander Almandoz Indakoetxea jn.

Igor Ugalde Salazar jn.

Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.

Juan M. Gonzalez Burguete jn.

Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Udala eratzeko eta alkatea aukeratzeko osoko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.-Udalbatza noizero batzartuko den erabakitzea.
- 3.-Informazio-batzordeak eratu eta osatzea.
- 4.-Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea.
- 5.-Alkateordearen izendapena dela eta, alkateak erabaki duena adieraztea.
- 6.-Eskaerak eta galderak.

1.- UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

2015eko ekainaren 13an egindako bileraren akta ikusi ondoren, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: aktaren bukaeran Jose Javier Ordoki agertzen da; akats bat da eta Jose Javier Mitxelena Ordoki da zuzena.

2.-UDALBATZA NOIZERO BATZARTUKO DEN ERABAKITZEA.

Udalbatza noizero batzartuko den proposamena alkateak egin ondoren erabaki dute ohizko bilkurak hilabetero egitea honela :

-hilabeteko lehenbiziko ostiraletan, arratsaldeko 19:00etan.

3.-INFORMAZIO-BATZORDEAK ERATU ETA OSATZEA.

Eratu eta osatu beharrezko informazio-batzordeei buruz alkateak egindako proposamenaren arabera segidako informazio-batzorde izanen dira, bakoitzaren ondoan adierazitako zinegotziaren ardura izanen delarik:

- HIRIGINTZA: Jose Fco. Javier Mitxelena jn.
- MENDIA ETA AUZOLANA: Juan Maria Gonzalez jn.
- KULTURA ETA KIROLA: Igor Ugalde jn.
- OGASUNA: Ander Almandoz jn.
- JENDARTE, KOMUNIKAZIOA ETA HEZKUNTZA: Iñigo Sarrias jn.
- INGURUGIRO, BASERRIGINTZA, TURISMO ETA EUSKARA: M^a Carmen Peña and.

4.-UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkari direla eta, honako zinegotzi hauek izendatzea ERABAKI DU:

ERAKUNDEA

ORDEZKARIA

- Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea: Ander Almandoz Indakoetxea jn. eta, ordezkoa, Jose Javier Mitxelena Ordoki jn.
- Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: M. Carmen Peña Lizarazu and. eta, ordezkoa, Ander Almandoz Indakoetxea jn.
- Bortzirietako Euskara Mankomunitatea: Ander Almandoz Indakoetxea jn. eta, ordezkoa, M.Carmen Peña Lizarazu and.
- Cederna-Garalur elkarte: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn, eta, ordezkoa, Iñigo Sarrias Zoco jn.
- Osasun Kontseilua: Juan Miguel Almandoz Mitxeleta eta, ordezkoa, Juan M. Gonzalez Burguete jn.
- Eskola Kontseilua: Iñigo Sarrias Zoco jn, eta, ordezkoa, Igor Ugalde Salazar jn.
- UEMA: Ander Almandoz Indakoetxea jn. eta, ordezkoa, M. Carmen Peña Lizarazu and.
- Turismo Batzordea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn. eta, ordezkoa, Iñigo Sarrias Zoco jn.
- Pellettiki: Igor Ugalde Salazar jn. eta ordezkoa, Iñigo Sarrias Zoco jn.
- UDALBILTZA: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn. eta, ordezkoa, Iñigo Sarrias Zoco jn.
- Ehiza Batzordea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn., Ander Almandoz Indakoetxea jn., Jose Javier Mitxelena Ordoki jn. eta Juan M. Gonzalez Burguete jn.

5.-ALKATEORDEAREN IZENDAPENA DELA ETA, ALKATEAK ERABAKI DUENA ADIERAZTEA.

Alkateak M. Carmen Peña Lizarazu andrea lehendabiziko alkateordea eta Ander Almandoz Indakoetxea jauna bigarren alkateordea izendatu dituela jakinarazi du.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
📠 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.

6.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Igor Ugalde jaunak adierazi du bestak antolatzeko bilerak hasi dituztela eta zehaztu behar dela ordainketak nola egin:

Aho batez, ERABAKI DUTE, bestetako ordainketak bestak pasatu eta aste batera egitea, ez emanaldia bukatu eta berehala edo egun berean.

Bertzerik gabe, gaueko 9:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn..



